Perutxo urduritu egin da. Ezpainak dardarka igarri ditu. Eta azkenean bera ere negarrez hasi da.

Oso desberdin egiten dute negar. Txomintxok negar-zotin laburrak egiten ditu. Perutxok luuuze egiten ditu negar-zotinak.

1-Hutsuneak bete:

Perutxo _____ egin da. Ezpainak _____ igarri ditu. Eta _____ bera ere _____ hasi da.

Oso _____ egiten dute negar. Txomintxok negar-zotin _____ egiten ditu. Perutxok _____ egiten ditu _____.

2-Erantzun zuzena bilatu:

Nor urduritu da?

a) Txomintxo urduritu da.
b) Perutxo urduritu da.
c) Ez dira urduritu.

Zer igarri du dardarka?

a) Besoa
b) Hanka
c) Ezpainak.

Nolakoak dira Txomintxoren negar-zotinak?

a) Laburrak
b) Luzeak
c) Ertainak

Nolakoak dira Perutxoren negar-zotinak?

a) Laburrak
b) Luzeak
c) Ertainak